

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Lizitaziora ateratzea "La Traviesa" interpretazio zentro eta dastalekuak, "zaintzailearen etxea" izeneko etxebizitzarekin batera, barnean hartzen dituen zerbitzu eta instalazioen kudeaketa eta mantentze lanak

Iragarki honen bidez, deialdia egiten da "La Traviesa" interpretazio zentro eta dastalekuak, zaintzailearen etxearekin batera, barnean hartzen dituen zerbitzu eta instalazioen kudeaketa eta mantentze lanetarako kontratua esleitzeko, honako datu hauen arabera:

Erakunde esleitzaila: Lagrango Udala.

Kontratuaren xedea eta izapidetzeko era: prozedura ireki bidez esleituko da ondare ondasunaren kudeaketa eta mantentze lanetarako kontratua.

Espedientea izapidetzeko era: arrunta; prozedura irekia; ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena, hainbat esleipen irizpiderekin.

Kontratuaren iraupena: bi urte, eta urteka luza daiteke. Gehienez ere, lau urte.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: lizitazioa oinarria (zergak aparte) urteko bi mila euroko errenta izango da. Baldin lizitatuzaileak zaintzailearen etxea behar badu, kanonari 2.000 euro (bi mila euro) gehituko zaizkio, zeina lizitatuzaileek hobetu ahal izango baitute. Etxea erabiltzeko, bertan erroldatu behar da.

Bermeak; behin-behinekoa: 120 euro. Behin betikoa: esleipen prezioaren ehuneko 10, esleipenaren arabera kalkulatuta.

Agiriak eta argibideak eskuratzea:

a) Lekua: Lagrango Udala, edo web orriko kontratatuzailearen profila: www.lagran.org.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: parte hartzeko eskaerak aurkezteko azken egunera arte. Espedientea Lagrango udaletxean (telefonoa: 945378059) aztertu ahal izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.

Eskaintzak balioesteko irizpideak:

Kontserbazio eta mantentze lanak: 40 puntu.

Ordutegia eta jatetxe-otordu zerbitzuak: 40 puntu.

Eskaintza ekonomikoa: 20 puntu.

Eskaintzak aurkeztea. Lizitatuzaileek Lagrango udaletxean aurkeztu beharko dituzte eskaintzak astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara arte. Hamabost egun izango dituzte horretarako, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epea amaitzen den eguna larunbata edo jaieguna bada, eskaintzak aurkezteko epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Eskaintzak irekitzea: eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egun baliodunean, 10:00etan, Lagrango udaletxeko batzar aretoan. Azken eguna larunbata izango balitz, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko litzateke.

Iragarkien gastuak. Esleipendunaren kontura.

Lagran, 2018ko otsailaren 22a

Alkatea

JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ